

Harian

Biztanleria (I) → Egoera orokorra

INEk dio Hegoaldean %7,6 gutxiago izango direla 2022an

Biztanleriak zer bilakaera izango duen jakiteko, proiektzioak egiten dituzte estatistika erakundeek. Espainiakoak (INE) iragarri du 2022an %7,6 biztanle gutxiago izango dituela Hego Euskal Herriak. Iragarpenetan ez da erabat zehatz ibili orain arte; aurtun, adibidez, iragarri baino 51.000 herritar gehiago ditu Hegoaldeak.

Biztanleriaren proiektzioak Hegoaldean

	2013			2022	
	Iragarpena	Benetakoa	Aldea	Iragarpena	Balitzko aldea 2013tik
Araba	311.311	318.364	7.053 (%2,27)	284.460	-33.904 (-%10,65)
Bizkai	1.127.644	1.147.766	20.122 (%1,78)	1.055.301	-92.465 (-%8,06)
Gipuzkoa	686.821	708.345	21.524 (%3,13)	645.276	-63.069 (-%8,9)
Nafarroa	635.935	638.390	2.455 (%0,39)	612.839	-25.551 (-%4)
Guztira	2.761.711	2.812.865	51.154 (%1,85)	2.597.876	-214.989 (-%7,64)

661

■ 100 urte edo gehiago dituzten herritarrek Hegoaldean. Gero eta herritar gehiago iristen dira mendea betetzera. INE Espainiako Estatistika Institutuaren zenbakiak: Hegoaldean, urte hasieran, 661 lagunek zituzten 100 urte edo gehiago. 2001ean 297 ziren, eta 1991n, 169.

Zahartuta, eta gaztetu ezinik

Europako herri zahartuenetarikoa da Euskal Herria: 15 urte baino gutxiago duten hamar laguneko, hamalau daude 65 urtez gorakoak

Hiru milioiren langa pasatuta, geldialdian da hazkundera, eta jaisteko zantzuak nabari dira

Garikoitz Goikoetxea

Herri zaharra dela esan izan dute, Europako zaharrena. Zahartutako herria ere bada orain, Europako zahartuenetakoa. Euskal Herria. 15 urte baino gutxiagoko hamar gazteko, hamalau lagun daude 65 urte baino gehiagokoak. Alemania eta Italia soilik ditu parean. «Mendebaldeko herrialdeetako prozesu normala da. Intentsitate handiagoa izan du hemen», azaldu du Pello Urkidi EHU Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak. Egoera areagotuko dela ziurra da: euskal herritarren %47k dituzte 45 urte baino gehiago. Erretiroa iritsiko dira asko hamarkada gutxian. Eta ez dago nahiko jaiotza horien tokia ordezkatzeko.

Hiru milioi herritarren langa orain zazpi urte gaindituta, berriro geldialdian dago biztanlearen kopurua. 2000ko hamarkadan immigrazioak izan du zeresan berezia biztanleriaren hazkunderan. Krisi garaian, aldatu dira gauzak. Euskal Herria biztanleak galtzen ari dela esateko zantzuak agertu dira. INE Espainiako Estatistika Institutuak aurreratu ditu aurtengo datuak: 5.100 lagun gutxiago zenbatu ditu Hego Euskal Herria. %0,17 lagun gutxiago urtebetean.

Hazkundera nabarmena izan du Euskal Herriko biztanleriak azken mendean. 1877ko datuarekin alderatuta, hirukoitza baino handiagoa da biztanleen kopurua. Argazki orokorra da hori, nolana ere. Euskal Herriko biztanleria hirukoitzuta ere, Nafarroa Behereak eta Zuberoak herritarrek galdu dituzte: %40 gutxiago dira. Bizkaiak, berriz, orain mende bat baino sei bider herritar gehiago ditu.

Industrializazioari lotuta dago biztanleriaren bilakaera, Hegoaldean, batez ere. XIX. mende bukaeran jarri du begia Urkidi. Milioi bat biztanle ere ez zituen Euskal Herria. «Jaiotza tasa handia zen, baina heriotza tasa ere bai, eta ez zegoen hazkundera handirik». Hasi zen industria hedatzen, eta bildu zuen jendea. Esanguratsua da Bizkaiko zenbakiak: hamar urtean, ia bikoiztu egin zuen biztanleria. «Higienetik eta hobetzen joan zen egoera, eta heriotzak gutxitzen joan ziren». Egoera berria zabaldu zuen horrek. «Familieki ikusi zuten geroa ziurtatzeko ez zela hainbeste umeren beharrik».

Batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan nabari da mende hasierako goraldia. Nafarroa Beherea eta Zuberoa husten ari ziren ordurako. Lapurdin hasia zen kostaldean jendea biltzen. Araba eta Nafarroan, batik bat mende erditik aurrera hasi ziren biztanleak gehitzen.

Piramiderik gabeko piramideak
Mende hasierako joera indartzen joan da, nahiz eta izan diren gorabehera batzuk historiaren harian. «Garapena ez da lineala», ohartarazi du Urkidi. 1918ko gripearen itzala nabari da Hegoaldean, eta areago 36ko gerrarena. «Heriotza tasa handitu zuela askotan esaten da, baina eragin handiagoa izan zuen jaiotzetan. Egoera normalean jaioko ziren ume asko ez ziren jai». 1950-60 aldera, berriz, aurkako: gerratik irtenda, egoera ekonomikoa hobetzen, jaiotza tasak berealdiko egoera izan zuten. *Baby boom* izena jarri zioten. Iparraldean, berriz, txikiagoak izan dira gorabeherak. Lehen Mundu Gerrak arrastoa utzi zuen, nolana ere.

Piramide itxurarik gabeko adin piramide bat utzi du bide horrek. «Eta, agian, ez du piramide izan behar. Azkenean, piramideak islatzen du jende asko jaiotzen dela baina asko hiltzen direla adin gazteetan. Orain daukagunak esan nahi du jendea zahar izatera iristen dela». Hori ona da, Unai Martin EHUko irakaslearen iritzian. «Gehiago bizi gara ikusten da, eta hori lorpen sozial bat da». Jaiotza tasa jaitzi dela bistan da, baina, haren ustez, bizi-itzaropena luzatzeak gehiago eragiten du. Euskal Herrian, 78 urtean dute gizonak, eta emakumeek, 84 urtean.

Adin banaketari erreparatuta, gune nagusia 30-59 urte bitartean dago: herritarren %46 daude horretan. Hortik kanpo, parekoa da egitura: 30 urtez azpikoak dira %29, eta 60 urtetik gorakoak, %26.

Europako datuen azpitik

Mundura begira jarrita, herrialde batzuetan badute Euskal Herriaren gisako egoera. Jaiotzen kopuruari erreparatuta, Europako batez bestekoaren azpitik dago Euskal Herria: 10,4ko tasa du Europako Batasunak; 9,9koa Euskal Herria. Suitzaren, Alemaniaren, Italiaren parean dabil, beraz. Espainiak eta Frantziak altuagoa dute tasa. Urteetan Europako iparraldeko herrialdeetan izan dute jaiotza gutxi; buelta eman diote, ordea, eta Euskal Herria atzean utzia dute. Finlandian, esate baterako, 11,2ko tasa daukate. «Jaiotza tasa berreskuratzeko politikak egin dituzte herri horietan. Politika sakonak, ez hemen jarritako adabakiak», adierazi du Urkidi.

Jaiotza kopurua horrela jaisteko arrazoiaren artean, antisorgailuen eragina bai, baina batez ere emakumeak lan munduan hartu duen tokia hartu du hipside Urkidi. «1960ko eta 1970eko hamarkadetan normala zen gaztetan emakumeak lan egitea etxetik kanpora, baina lehen haurra izanda lan merkatutik ateratzen ziren. Gaur egungo andreak, baimenak izan arren, itzultzen dira».

Bat eta beste, zahartzera jotzen jarraitzen du Euskal Herria, eta urte gutxian areagotuko da hori. Martin: «*Baby boom* garaian jaiotakoek erretiroa hartzen dutenean, arazoa izango da une horretan lan egiteko adinean daudenak asko gutxiago izango direla. Lan merkatuan ordezkapena egiteko arazoak izango ditugu». Eta urte gutxi falta dira hori gertatzeko: Hegoaldeko datuak oinarri hartuta, herritarren %12ri hamar urte baino gutxiago falta zaizkie erretiroa hartzeko adinera heltzeko.



Etorikin gehienak gazteak izaten dira, eta horrek lagundu du jaiotza tasa berpizten»

PELO URKIDI
EHUko irakaslea



«'Baby boom' garaian jaiotakoak erretiratzean, arazoa izango da lan merkatuan ordezkatzeko»

UNAI MARTIN
EHUko irakaslea

Deigarria da: Euskal Herrian lanerako jendea faltako dela eta gazteak kanpora joaten ari direla zabaltzen ari dira. «Ez dakit zenbat ari diren joaten, baina laster etorriko dira, ez dagoelako ordezkapenik. Eta kanpotik ere hasiko da jendea berriro», dio Martinek.

Etorकिन. Industrializazio garaian Espainiatik bezala, 2000ko hamarraldian Afrikatik, Latinoamerikatik eta Europako ekialdetik etorri dira milaka. «Biztanleak galtzen ari ginen», ohartarazi du Urkidi. Alde handiz ez, baina jaiotza tasaren goitik zegoen heriotza tasa 1990eko hamarkada bukaeran eta 2000koaren hasieran. «Egoera sozioekonomikoa aldatzearekin, kanpotarrak etortzen hasi ziren. Etorikin gehienak gazteak izaten dira, eta horrek lagundu du jaiotza tasa berpizten».

Erretiroarekiko kezkan

Gizartea zahartzeak pentsioetan izan dezakeen eraginak sortu du ezinezona azkenaldian. Espainiako Gobernuak esku artean du erreforma proiektu bat. Aldaketa behar dela argudiatzeko, oker erabiltzen dira datu demografikoak, Martinen ustez. «Arazoa ez da demografikoa, baizik eta politikoa». Adin egitura hartu dute kontuan aldaketa behar dela esateko; demografoak azaldu du lan egiteko adinean dauden kopurua ez, lan egiten dutenena hartu behar dela aintzat. Krisiaren aurreko adibidea jarri du: 65 urtetik gorako kopurua gehiago hazi zen lan egiteko adinean zeudenena baino, baina Gizarte Segurantzaren egoera hobetu egin zen, jende gehiagok aurkitu baitzuen lana.

Gizarte egitura berriari erantzutea da erronka, aditu bien iritzirako. «Multz handi bat erretiroa hartzen joango da, bizi-itzaropen handiarekin, eta oso baldintza onetan, ezgaitasun handirik gabek». Zerbitzuak egoera horretara egokitzen joan beharko dutela uste du Urkidi. 45 urtetik gorakoak ia herritarren erdiak izanda, gero eta gehiago biziko direla begi bistan egonda, «aldaketa kultural bat» ate-joka dago, Urkidiren ustez: «Ez da berdin lehengo 65 urte edo oraingo 65 urte. Erretiroa hartuko dute, bai, baina pertsona ongi badago, ez dira zahar-zaharrak».

Bihar: Eskualdekako egoera.

8» «Terrorismoari gorazarre» delituak areagotu egin dira, interpretazioa zabaldu dutelako

12» Osakidetzak osasun txartela emango die erroldan gutxienez urtebete daramatenei

Biztanleria (I) → Egoera orokorra

Gizonak gehiago dira 45 urte arte; hortik aurrera, andreak

Adin piramideari erreparatuta, gizonen eta emakumeen artean aldeak daude adinaren arabera. Alde handiarekin ez bada ere, 45 urtera arte gizonak gehiago dira Euskal Herrian; bi puntu inguruko aldekoa da. Hortik aurrera, andreak nagusitzen hasten dira, pixkanaka. 45-59 urte bitartekoetan, gehixeago dira emaku-

meak (%50,4), eta 60-74 tartean ere bai (%52,54). Gizonezkoen bizi-itxaropena hortik goraxeago dago, eta nabari da horizenbakietan. 75-89 urte dituzten artean, bostetik hiru baino gehiago dira emakumeak. 90 urtetik gora nabari da alde handiena: lautik hiru dira andrazkoak. Datuak osorik hartuta, zerbait gaitetik emakumeak daude: herritarren %51,1 dira; gizonezkoak, %48,9.




Emakumeak gehiago bizi dira. INIGO URIZ / ARP

BERRIAK erreportaje sail bat argitaratuko du demografiaz

Gaur hasita, Euskal Herriko demografiari buruzko erreportaje sorta bat kaleratuko du BERRIAK aste osoan. Datuekin batera, alorrean alorreko adituekin osatuko ditu erreportaje horiek. Aztergai izango ditu, besteak beste, herrialde eta eskualde bakoitzeko egoera, etxebizitza, migrazioak eta familian gertaturiko aldaketak.


Euskal Herriko biztanlegoa




Banaketa 2012 (%)



Biztanlegoaren hazkundera



Adin piramidea 2011



Jaiotzak eta heriotzak



Biztanleria (II) → Eskualdekako egoera

dugu». Leteren ustez, lur gehiegi erabili da hirigintzan. «Hazteko garaian, berdeguneak eta gune libreak behar dira, baina joera izan da gehiago jartzea, eraikinen artean toki gehiago uztea. Artifizial bihurtu da lur gehiegi». Jaurilari-tzak muga jarriko du: hazteko perimetro bat ezarriko du herrietan.

Hiri inguruen gorakada

Beste joera batzuk ikusten hasiak dira azken urteetan. «Hirietatik herri ez hain txikiak joaten ari da jendea: beste bizimodu baten bila dabilzanak, gazteak... Kontraurbanizazio prozesu bat da», azaldu du Lozanok. Hiriburuen inguruko eskualdeetan nabari da gorakada. Bizkaian, %64 handitu da biztanleen kopurua Plentzia-Mungia inguruan; 22.000 lagun gehiago. Gipuzkoan, Donostia alboan, %20 inguru hazi dira Bidasoa Beherea eta Urola Kosta; biek 13.000 herritar gehiago dauzkate.

Arrisku bat badu horrek, hala ere: azpiegiturak eta sareak hiriburuen eta handitzen ari diren eskualdeen artean sortzea. Sare bat eratzea gune nagusiak soilik aintzat hartuz. *Euskal Herria*. «Konzeptu literario bat zena errealtate bihurtzen ari da», dio Lozanok.

Azpiegitura sarea sendoa dela nabarmendu du Letek. «Oreka bat lortzen da horren bidez, nahiz eta herri txikiak beste maila batean egon». Atzerapausoak ikusi ditu EHUko irakasleak: «Landaguneak lotzeko baliabide dira azpiegiturak, eta aurkakoa egiten ari dira. A dibide argia da abiadura handiko tren. Garai batean, egiturazkoak ziren tren arruntak; AHTa, inola ere ez. Aurkakoa da». Mesederako izango dela erantzun du Letek: «Gure lurraldea puntu estrategikoa da Europa iparra eta hegoa lotzeko, eta epe ertainera eta luzera etekina ekarriko digu».

Herrien %60, herritarren %5

Herri txikiak behar adina kasu ez zaiela egiten ohartarazi du EHUko irakasleak. Mila biztanle baino gutxiago dituzte Euskal Herriko herri gehienek: 685etik, 408k —hamar herritik seik—. Horietatik 48tan, ehun biztanle ere ez dira. Herri kopuruari erreparatuta erdiak baino gehiago izan arren, herritarren kopurua aztertuz gero, pisu eskasagoa dute: biztanleria osoaren %5 ere ez dute. Barnealdean daude herri txiki ia guztiak.

Herritarrek galdu eta galdu ari dira asko, eta zahartu eta zahartu. Gazteak ari baitira alde egiten. Nafarroako Orotz-Betelu adibide argia da: 166 lagun bizi dira, orain 30 urtekoen ia erdiak, eta apenas dagoen gazterik. 60 urte baino gehiago dituzte herritarren erdiek pasatxok, eta 20 urte baino gutxiagoko bi pertsona besterik ez dago.

Desagertzeko arriskuan dauden herrietan buruz Gaindegia eginitako azterketa batean ageri da Orotz-Betelu, beste 49 herriekin batera. Ikerketa horrek azalatu zuen zer leku ari diren husten eta zahartzen: Zuberoako eta Nafarroa Behereko joera orokortuaz gain, herri txiki asko kolokan daude Nafarroako Pirinio inguruan, Lizarrerrian, Zangoza aldean eta Bidasoa Garaian. Haietako 21 arrisku bizi izan dituzte.

Herri txikiak buruz gogoeta bat egitea nahitaezkoa dela ohartarazi du Geografia irakasleak. «Landa eremuak zer nahi ditugu, lorategi gisa ikustera joateko?». Hirietan jendea pilatzen, herri txikiak husten eta zahartzen, gero eta gehiago entzuten den kontzeptu bat jarri du mahai gainean: «Lurralde antolaketa inoiz ez da aipatzen elikagai subiranotasuna. Landa eremurik gabe, non ekointziko ditugu elikagaiak? Horri ez badiogu heltzen, gureak egin du».

Bihar: Etxebizitzaren egoera.



Biztanleria zahartzen ari da mendialdean, eta jaiotza kopurua oso eskasa da. JACOBA MANTEROLA / ARGAZKIPRESS

Pirinio aldeko herrietan joera kezagarria du biztanleriak: gazterik apenas, oso jaiotza gutxi, zahartze handia... Gobernuak hiri ingurua bultzatu dute, eta ahulduta dago mendialdea. Tokiko ekonomia bultzatu asmo dute han.

Lurralde baztertuak lurralde bazterrean

G. Golektxoa

Baztertu daukatela askotan salatu dute, eta datuek berresten dute ari dela zerbait gertatzen. Biztanle aldetik galera handia ari da jasaten Pirinio aldean. Etorkeziko ikusten ez, eta alde egiten ari dira gazteak, eta erabat zahartuta dago mendialdea. Erronkari-Zaraitzuko datua esanguratsua da: 15 urte baino gutxiagoko hamar laguneko, 44 daude 65 urte baino gehiagokoak. «Modu gordinean ikusten ari da hori herri txikietan, epe ertainean desagertzeko arriskuan jartzeraino», ohartarazi du Izaskun Abril Cederna-Garalur garapen agentziako teknikariak.

Nafarroako eskualdeen egoera du aztergai agentzia horrek, eta Abrilek azaldu du mendialdeko datu orokorrekin ezkatzen dutela herri batetik besterako alde. Fikzioan, Euskal Herri osoko joera errepikatzen ari da Nafarroako mendialdean. «Bi dinamika nagusi dira azken urteetan: herri txikietan behera egin du biztanleria, baina herri handiek bilakera positiboa dute». Nabarmen hazi dira herri batzuk: Lekunberrik, hamabost urte eskasean, %76 biztanle gehiago ditu. 1.473 dira orain.

Zergatik alde egiten dute gazteak? Bi arrazoi aipatu ditu Abrilek. Batetik, heziketa. «Gazte anitzek herria uzten dute iruñean ikasteko, eta harreman pertsonalak eta profesionalak hirian gauzatzen dituzte. Eta gero zaila da egoera horri buelta ematea». Bestetik, lan aukerak. Aukerarik eza. «Gazteek aukera gehiago izan edo bilatu dituzte hirian, bereziki goi mailako ikasketak egin dituztenek».



Ikasteko herria utzi, eta harremana hirian dute gazteek; gero zaila da horri buelta ematea»

IZASKUN ABRIL

Cederna-Garalur garapen agentziako teknikaria

Abril Nafarroako egoerari buruz ari da, baina gisa berekoa da egoera Zuberoan eta Nafarroa Beherean ere, eta Lapurdin ere badu zerikusia. Goi mailako ikasketak egiteko, Euskal Herriko Joan egin behar izaten dute gazte askok, eta kanpoan hasten dute lan ibilidea, Frantzia aldean bereziki. Ez dute beren kualifikazioarekin lotutako lanposturik hemen, eta atzerrian egiten dute bizimodua.

Gazte gutxiago, oso jaiotza gutxi, eta jendea zahartzen. Egoera horretara moldatu behar izan dute herriek. «Azken urteetan pauso handiak eman dira, baina krisia kolokan jartzen ari da lortutako zerbiztu mallan». Murrizketen jomugan daude: hezkuntzan, mozketak dituzte, irakasleak eta diru laguntzak ikasle kopuruaren arabera ematen baitituzte; osasunean, landa gumeetako larrialdi zerbiztuak ahuldu nahi izan ditu Iruñeko gobernuak, aurrez aurreko zerbiztua kenduz; parlamentuak atzera bota du hori. Azpiegitura ere ez da egin aurrera, Abrilen arabera. Ardatza Iruñea izan da beti. «Landa eremuen menpekotasuna eta ahulezia dakar horrek».

Eraldaketerako, tokikoa

Egoera horri aurre egiteko, tokiko ekonomia bultzatu nahi dute. «Lan aukerak herrietan ere sor daitezke, ekintzaileak baldin baditugu. Porrot egiteari beldurra galdu behar zai». Elkarlanean hasi dira erakunde batzuk, tokiko ekonomia sustatzeko. Asko ez dira, baina familia gazteek itzaropenarako atea zabaldu dutela nabarmendu du Abrilek. «Badira sendi gazteak herri txikien alde egin dutenak, bertan bizi nahi dutenak».



Elikagaiak non ekointziko ditugu landa eremurik gabe? Horri heltzen ez badiogu, gureak egin du»

PEIO LOZANO
EHUko Geografia irakaslea



«Gure lurraldeak beti eduki du trinkotasun kutsua. Gure orografiak hazkundera mugatu du»

ELENA LETE
Jaurilarietako Lurralde Antolaketa zuzendaria

Lotarako auzoak esaten diete. Hirian lan egiten du jendeak, han egiten du bizimodu gehiena, eta lotara joaten da etxe aldera. «Indartzen ari da joera hori, eta pena da. Hiri nagusien alboan baziren izaera bereziko herri batzuk, eta lo egiteko leku bihurtu dira, batez ere Bilbo eta Donostia aldean. Nortasuna galtzen ari dira», ohartarazi du Lozanok. «Igerian dabilen gizarte» sortu du horrek, haren ustez: etxetik lantokira, lantokitik etxera, egunero hara-hona dabilen gizarte. «Oso mugimendu pendularrak izaten dira, eta garrantzi izugarria dute lurraldea antolatzeke. Azpiegiturak antolatzea behar dira horien arabera».

Biztanleria (III) > Etxebizitzaren egoera

232.000 etxebizitzatan ez dago inor

Hutsik dauden etxeak eta oporraldian soilik erabiltzen dituztenak zenbatuta, inor bizi ez den etxeak %15 pasatxo dira Euskal Herrian

Kostaldean askoz ere handiagoa da kopurua: Bakion, bostetik bi ere ez dira ohiko etxeak

Garikioitz Goikoetxea

Eskasiak sortu du kezka eta neurriak hartu beharra, baina aintzat hartzeko modukoa da eraikitako etxebizitzetxei ematen zaien erabile-
ra ere. 232.000 etxebizitzatan ez du inork bizimodurik egiten. Euskal Herriko etxe guztien %15 pasatxo dira. Hutsik daude etxe horietako gehienak: 124.000 inguru. Gainerakoak opor garairako bakarrik erabiltzen dituzte, urte osoan aste batzuetarako: 108.000 etxebizitzeta baino gehiago dira. Batez ere itsasertzeko herrietan daude eguneroko bizimoduan erabiltzen ez dituzten etxeak; erdiak baino gehiago dira kasu batzuetan. Lapurdiko kostaldean dago horrelako etxe gehien, eta hazten ari da kopurua.

Etxe asko eraiki dute azken hamarkadan Euskal Herrian. Gaur egun 1,5 milioi etxe daude: hamarkada batean 215.000 etxe egin dituzte; %17 hazi da kopurua. Hego Euskal Herriko azken zenbakiak 2011koak dira, eta Iparraldekoak, 2009koak. Hamarkada bateko bilakaera aztertuta, bi ondorio nagusi atera daitezke. Bat: nahiz eta etxe gehiago egon, batera erabilerarik gabeko etxeak gutxiago dira —14.000 gutxiago, %10 jaitsita—. Bi: ohiko etxebizitzaren kopurua asko handitu da —227.000 etxebizitzeta gehiago dira, %22 gehiago—. Opor garairako etxeak ere ugari dira, baina gutxiago: hamarkada batean 2.500 gehiago, %2 gehituta.

Gorabehera handiak daude, ordea, datu horien azpian. Lapurdiko kostakoak dira mugimendu handienak. Oporraldirako etxeak nagusitzen ari dira. «Zahar dirudunak dira geroz eta gehiago kostan, erretireta gozoa pasatzera datozenak. Euskal Herria erakargarri zaie, eta ez da Mediterraneo aldekoak bezain leku garestia». Lurra eta Etxebizitza kolektiboko kide Xabier Tubalek azaldu du bizimoduaren Parisen egindako jendea dela, «klase erdi-altuko», aurrezkiekin erretiratuta Lapurdia doana.

Igarri da igoera. Miarrizten eta Donibane Lohizunen, bigarren etxeak dira bostetik bi. 9.700 Miarrizten, orain hamar urte baino 2.800 gehiago; Donibane Lohizunen 8.600 etxe dira, 2.200 gehiago. Hendaia daukate atzetik: 7.800 etxe dira bigarrenak, denen %34.

Turismora emandako herrien egoera da. Bakion, Bizkaian, bigarren etxeak dira erdiak pasatxo: 1.600. Hutsik 350 daude. Ondorioa: ohiko etxeak bostetik bi ere ez dira. Gorlizen (Bizkaia), bostetik bi etxe dira oporretarakoak: 1.800. Gipuzkoan, neurri txikiagoan, jorera hori Zarautzen nabari da: bost etxetik bat da bigarrena (2.500). Kostaldetik kanpo, portzentaje berak dituzte Nafarroa Beherean, Donibane Garazin eta Baigorri.



Erretireta gozoa pasatzera datozen dirudunak gero eta gehiago dira; Euskal Herria erakargarri zaie»

XABIER TUBAL
Lurra eta Etxebizitza kolektiboko kidea



«Zentzurik ez du etxe gehiago egiten jarraitzeak. Dagoenari etekina atera behar zaio»

PILAR GARRIDO
EHUko irakaslea

Hutsik dauden etxeen kopurua ere aintzat hartzekoa da. Nafarroan, hamarretik bat dago horrela. Herri batzuetan, gehiago: etxeen laurdenak daude hutsik Baztanen, Cascanten eta Lodosan. Orozkon (Bizkaia), etxeen herenak.

Nahiko etxe badela uste du Pilar Garrido EHU Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. «Zentzurik ez du etxe gehiago egiten jarraitzeak. Dagoenari etekina atera behar zaio». Zer egin pentsatzeko unea da, haren arabera. «Gelditu egin behar dugu, eta planifikatu, eraikita dagoena oinarri dela».

Etxebizitzak Euskal Herrian



TURRIA: INE-INSEE



Hamarkada batean %17 handitu da etxebizitzaren kopurua. JUANANRUIZ / ARP

Espekulatzeko atea zabalik uzten baitu oraingo egoerak. Tubal: «Dirudun askok egiten dute erosi etxea, eta alokairuarekin espekulatu. Ez dute urte osorako alokatu nahi. Nahiago dute hamar hilabetez gazte bati alokatu prezio normalean, eta uda datorrenean gazteak etxea utzi, eta hileko prezioa astean jartzea. Ona da negoziatzea». Etxeak hutsik egoteak, espekulatzeak eta horrelakoek etxebizitzari buruz dagoen irudia islatzen dute. Garridoren iritzian: «Ulertzen ez den arte eskubidea dela etxebizitza, hala segituko dugu. Onartzen badugu denen eskubidea dela etxea izatea, nola ametituko dugu erabiltzen ez direnak egotea?».

Herriko etxeek, isuna nahiago

Lapurdi kostaldeko herriko etxeen jarrera maiz salatu dute eragileek. Legeak behartzen ditu gizarte etxebizitzak egitera, baina udalek nahiago dute isuna ordaindu. Miarrizteko adibidea jarri du Tubalek: legez behartuta dago etxeen %20 sozialak izatera, baina %8 eskas dira. «Arazorik gabe pagatzen du isuna, eta bigarren etxebizitza gehiago egiten segitzen du». Are, salatu du eraikitzen dituzten etxe sozialak herriatik urrun egiten dituztela, «eraikitzaileei hain interesgarri ez zaizkien tokietan».

Zergak hartu dute zeresana azken denboran: ohiz erabiltzen ez diren etxeengatik, zergak handitzen hasi dira eraikunde batzuk. Bi bide bateratu behar direla uste du Garridok: «Zergak igotzea da bide bat, eta etxe horiek merkatuara ateratzea bestea. Bi bideak behar dira». Iparraldean, kontrakoak egiten dute arauak: «Broma dirudi, baina bigarren etxeengatik lehenengoaren erdia pagatzen da». Tubalek ohartarazi du, gainera, dirua Parisera doala. «Zerga hemen ordainduko balitz, hemengo ekonomian utziko luke zerbaiz».

Etxebizitzaren merkatua hartzen ari den joerak lehen ere baldintzatzen du Lapurdiko eta Iparralde osoko ekonomia, haren ustez. «Etortzen den jendeari eduki behar zaio lorategia ondo, igerilekua ere bai, etxea garbi... Horretan eta osasun alorrean dago zerbitzuen parte handi bat». Gazteek tabernetako zerbitzari-eta aurkitzen dute lana, eta, kualifikazio handiko postuak izatekotan, kanpora joan behar dute maiz. Indarra galtzen ari da laborantza, industria poliki garatzen ari da, eta zerbitzuen da alor nagusia. «Gero eta menpekoago gara etortzen ari den jende horrekiko, jaten ematen digun lurra balitz bezala».

Bihar: Familiako aldaketak.

Biztanleria (IV) → Familiako aldaketak

Eredu berriak eratzen ari dira: lautik bat bakarrik bizi da, hamarretik bat da guraso bakarra, seme-alabarik gabe bizi dira bikote gehiago... Zahartzeak beste erronka bat jarri du mahai gainean: adinekoen zaintza nola bideratu.

Familia berriak eta 'sandwichak'

Garikoitz Galkoetxea

Krisiaz mintzo dira. Familiaren krisiaz. Edota iraultzaz. Familian gertatzen ari den iraultzaz. «Eredu baten gainbeheraz ari dira, baina, azkenean, sortzen ari diren molde berriak eredu horren garapen edo ondorioak dira». Aldaketak bai, baina iraultzarik ez. Euskal herritarrek gero eta gehiago bizi dira, gizartea zahartzen ari da, eta horrek, nahitaez, aldaketak dakartzta familiara. Batez ere horrek ekarri du aldaketa, Marta Luxan EHU Euskal Herriko Unibertsitateko soziologoaren ustez. Onartuago daude beste eredu batzuk. «Baina familia beti hor dago. Familiari buruz ez, familiei buruz hitz egin behar da orain. Baina pisu handia izaten jarraitzen dute».

Datuiei erreparatuta, *eredu klasiko*a esaten diotenak segitzen du buru Euskal Herrian: aita-amak eta seme-alabak teila tupe berean. Nabarmen galdu du indarra urte gutxian, ordea. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuak hartuta adibiderako: 1991n, eredu horretakoak ziren familien erdiak baino gehiago, eta hogeitaz buruan, hiru senditik bakarra da. Luxanek ohartarazi du beste egitura klase batzuk indartu direla: kogaldu duela pisua eredu horrek. Zein eredu dira horiek? Bat: seme-alabak dauzkan guraso bakarra. «Egitura hori gaur egungoa dela dirudi, eta ez da horrela. Egia da, edonola ere, diskurtsioan onartuago dagoela», azaldu du Luxanek. Hamar senditik bat da Euskal Herrian horrelakoa. Bi: seme-alabarik gabeko senar-emazteak. Hogeitaz urtean ia bikoiztu egin da kopurua Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta bost senditik bat da estilo horretakoa. «*Hustutako habiak* dira gehienak, seme-alabak inpendizatu diren familia». Kontuan hartzekoa da Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan handiagoa dela bikote soilen proportzioa. Erretreta hartzean etorritako gehiago dago Iparraldean.

Bakarrik, eta zaintzarik gabe
Bestelako eredu hori geroaldi hori azaltzeko, joera berriek daukaten eragina maiz hartzen dute hizpide. Luxanek uste du, ordea, gizartearen zahartzea dela oinarria: «Postmodernizazio prozesuaren baimoago, bizi-itzaropenaren demokratizazioarekin harremanetan ulertu behar ditugu familia egituraren gertatutako aldaketak».



Erretiroa hartu duten askok, bilobak ez ezik, gurasoak edo osaba-izebak zaindu behar izaten dituzte. JUANANRUZ / ARGAZKI PRESS

Bakarrik bizi direnen egoera da adibidea. «Esanguratsua da kopurua: herritarren laurdena baino gehiago bizi da bakarrik. «Egia da bakarka bizi diren gazteen kopurua handitu dela, baina batez ere adineko emakumea da bakarrik bizi dena», azaldu du Luxanek. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, adibidez, bakarrik bizi direnen %60 dira andrazkoak. Ez dira gutxi: 80 urtez gorakoak hartu Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta hirutik bat dago bakarrik.

Zaintza. Gizartea zahartzeak mahai gainean jarri du erronka. *Laugarren adina* kontzeptua erabiltzen hasi dira adituak. «Dudarik gabe, aurrerapausoa da gehiago bizitzea, ona da. Baina laugarren adineko pertsonen zaintza bereziak behar dituzte», ohartarazi du soziologoak. Noren gain ari da geratzen horren ardura? «*Sandwich belaunaldia* sortzen ari da. Bilobak zaintzen dituzten aitona-amonak, eta orain gurasoak edo osaba-izebak ere zaindu behar dituztenak». Erdian harra-patuta geratu dira. «Estresa sortzen die horrek. Zahar etxera joatea nahiago dutela esaten dute, euren alabak hala egotea baino».

Alabak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egin duten inkestak batetik berretsi du oraindik ere emakumeek zaintza lanetan demora bikoiztu ematen dutela, eta seme-alabak izandakoan areagotu egingo direla desberdintasun horiek.

Zaintzaren beharra areagotuko dela ziur jakinda, gogoeta egiteko garaia dela nabarmendu du Luxanek. «Gizarteak aurre egin behar dio egoera horri». Ezikusia egin izan dio sarri askotan, ordea. «Atzeritarrak kontratatu ditugu zaintza lanetarako, guk ez baitugu denborarik. Bizitza zeren araberantz antolatzen dugun erakusten du horrek». Beharra izango da zaintzarako, heldu beharko zaio erronka horri. Baina arriskua badago lan hori emakumeen bizkar lagatzeko. «Eta beldur naiz dena egin dagoela pentsatzea ez ote den ari sortzen eragin ezkorra».



«Sandwich belaunaldia»: bilobak zaintzen dituzte, eta orain gurasoak eta osaba-izebak ere bai»

«Familiari buruz ez, familiei buruz hitz egin behar da. Baina segitzen dute pisu handia izaten»

MARTA LUXAN
Soziologoa

Hitzez onartzen baitira aldatzea asko, baina ekintzaz, gutxiago. «Inork ez du esaten: 'Ez dut ezer egiten etxean, dena neska-lagunak egiten du'. Baina gero horrela izaten da maiz». Aurrerapausoak izan diren beste gai batzuetan ere bai. Amatasuna. «Onartzen dugu 35 urteko emakume bat parrandan ibiltzea, baina galdetzen diogu ea umeak non utzi dituen».

Bi ezkontzako, banaketa bat

Aldaketak badira, hala ere. Ezkontzak nabarmen jaitsi direla maiz-maiz aipatzen dute estatistikek. Kontua da ezkontza gehien izaten den adinean jende gutxiago dagoela. «Egia da, ordea, beste aukera batzuk ere badaudela: ezkondu gabe bizitzea onartua dago, izatezko bikoteak daude...». Eboluzioa: Hegoaldean jaiotako umeen artean, 1975ean %1ek zuten ama ezkongabea; 2000n, %14k; eta 2011n, %33 pasatxo. «Ezkontzak pisua badu, oraindik ere. Ezkontza zibilak ugartzeko erakusten du errituen beharra dugula».

Eta banaketak. «Oraindik ere badu porrot kutsua, zerbait gaizki egin dela». Asko ugartu dira, ordea: Hegoaldean, bi ezkontzako, banaketa bat baino gehiago dago gaur egun. «Onartua dago, baina segun eta norentzat. Adinaren arabera. Onartzen ote dugu 70 urteko bikote bat banatzea?».

Bihar: Immigrazioa-emigrazioa.

herrigoia

Arabako Errioxako Ardoa

Compañon Arrieta Bodegak

Tel.: 658 107 368
Lantziego - Araba

Herrigoia beratze karbonoz landutako ardoa da, eta gehienbat, 40 urteko garako mahastiek emandako mahastarekin. Compañon Arrieta familiak maitasun handiz lantzen ditu ardo hau jabetzen diren hektareak bikainek. Arabako Errioxako luraren osatzea betetzeko ematen dio ardo honi izateko patesgabeara.

Biztanleria (V) → Migrazioak

Gehiago doaz, urriago datoz

Migrazioen joera irauli du krisiak, eta joaten direnak gehiago dira etortzen direnak baino; Hegoaldean, 14.000 gehiagok alde egin dute

Espainiaz kanpoko immigrazioa %45 jaitsi da bost urtean, eta Espainiakoa %18 igo da

Garikoltz Galkoetxea

Etortzekoa izan da joera azken urteetan, eta nabarmen handitu da immigrazioa. Espainiaz kanpoko 12.000 etorkin ziren Hego Euskal Herrian 1991n, eta, gaur egun, 207.000 inguru. Baina aldatzen hasi da joera. «Immigrazioa ekonomiarik lotutakoa izan da batez ere. Lanera etorri dira. Eta, krisiarekin, beheraldia etorri da». Gorka Moreno Ikuspegiko zuzendariarena da azalpena. Etortzen gutxiago ari dira, eta joaten, gehiago. Saldo negatiboa du Hegoaldeak dagoeneko: etorri baino jende gehiago ari da alde egiten. Aintzat hartzekoa da, halere, indarra hartu duen aldagai bat: beste herrialdeetakoak jaisten, eta Espainiakoa immigrazioa areagotzen ari da. Horrek mantsotu du beherakada.

Datuak lortzea korapilatsua da immigrazioari dagokionez. Paristik eta Madrilatik taxutzen dituzte estatistikak, eta Euskal Herria ez dute kontuan hartzen. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan zailagoa da datuak biltezea. Batzuk badira, hala ere. 2010eko datuak eman berri ditu INSEE Frantziako estatistika erakundeak. 20.000 etorkin jo ditu Iparraldean —kontuan izan Frantziatik etorritakoak ez dituela etorkin gisara hartzen, baina bai Hegoaldetik joandako euskal herritarrak—. Alde handiak nabari dira: kostaldean %9,5 dira etorkinak, erakundearen arabera; barnealdean, %3.

Kostaldeko datu xeheagoak badira. Gaindegiak aztertu ditu, eta emaitza da %13 baino gehiago direla Frantziatik edo beste herrialde batetik etorriak. Hegoaldetik joandakoak ere etorkin gisara dituzte estatistiketan. Uste izatekoa da Espainiakoa nazionalitatearekin joan zirenak direla. Kostaldeko herritarren %1,3 lirateke.

Datu horiekin, Lapurdiko kostaldea Hegoaldeko batez bestekotik gora legoke immigraanteen kopuruan. «Kontuan izan nazionalitate askok lortu dutela, eta horiek estatistiketan ez direla ageri. Datuetan gutxiago izatea eragiten du horrek ere», dio Morenok.

Jaitsiera nabaria dagoela ezin da ukatu, nolana ere. «Askotajaitsi da immigrazioa azken hiru-lau urteetan. Etorkin askoz gehiago zetozen 2005ean edo 2006an. Oso nabarmen, geldialdi batean gauden». Krisia gogortuz joan ahala, beherantz segitu du immigrazioak: 2008an, 45.600 pertsona iritsi ziren Hegoaldera, eta iaz, 37.600 —%18ko jaitsiera—. Kontua da bi joera batzen direla hor: jaitsiera orokorra eta Espainiatik datozen gorakada. Banatuta aztertuz gero, ikusten da alde handia dagoela. Immigrazio osoaren kopuruari Espainiakoa kenduta, hau da egoera: 2008an, 25.900 lagun etorri ziren, eta iaz, 14.200 —%45eko jaitsiera da hori—. Aurkako bidean, goraldean dago Espainiatik Hegoaldera datozenen kopurua: 19.800 pertsona ziren orain bost urte; iaz, berriz, 23.400 —%18 gehiago da—.


Etorkinak dira Espainiatik etorritakoak ere, baina, Morenoren iritzian, jendeak ez dauka sententzia hori: «Etorkinei buruz duen iritzia galdetzean, jendea iritzi burura etortzen zaizkio marokarrak edo boliviarrak, baina ez, beste garai batzuetan bezala, beste erdidegoetatik hona etorritakoak».

Emigrazioa, %57 gora

Emigrazioa ari da zeresana jartzen azkenaldian. Datuei erreparatu gero, gorakada nabari da Hegoaldean. 2008an, 31.200 lagunek alde egin zuten beste herrialderen batera; gehienak Espainiara joan ziren, 18.800 inguru. Hurrezko, asko handitu da emigraanteen kopurua, %57 inguru: 49.000 lagunek alde egin zuten 2012an, ez joan egin ziren etorri baino 11.400 gehiago. Espainiarekiko migrazioak kenduz gero, are nabarmenago: 2008an, 13.400 gehiago ziren etorri zirenak; iaz, 17.700 gehiago ziren joandakoak.

Krisiak irauli egin ditu datuak, erabat. 2008an migrazio saldo positiboa zuten Hegoaldeak; joan baino 14.400 lagun gehiago etorri ziren. 2012an, ez joan egin ziren etorri baino 11.400 gehiago. Espainiarekiko migrazioak kenduz gero, are nabarmenago: 2008an, 13.400 gehiago ziren etorri zirenak; iaz, 17.700 gehiago ziren joandakoak.

↓ Migrazioa Hego Euskal Herrian




(TUUSRIA/INE)



Emigrazioa %57 handitu da azken bost urteetan. Etorkinak dira alde egiten ari diren gehien-gehiak. ARRIABE/ARP

Joaten ari direla bistan dago, baina Morenok uste du hemen geratuko direla immigrante gehienak. «Gauzak ez dira automatikoak. Askotan, jatorrizko lurraldeak ez die hemen baino aukera hoberik ematen. Gainera, badituzte sustraiak hemen ere: askok seme-alabak izan dituzte, bertakoak dira, hemen egin dute bizitza... Eta, horrez gain, husteria ez den kontu bat: etxea erosi dute askok, eta hipotekak baldintzatuta daude».



Immigrazioa ekonomiarik lotutakoa izan da. Lanera etorri dira. Krisiarekin, beheraldia etorri da»

GORKA MORENO
Ikuspegiko zuzendaria

Etorkinak joaten hasi dira, baina azken hilabeteetan ezinezona eragin dute bertako gazteak ere joaten ari direla dioten albisteak. «Mito asko dago horretan», ohartarazi du Ikuspegiko ordezkaririk. Nabarmendu du «oso ohi-koa» dela gazteak kanpora joatea ikasketak egitera edo horiek amaitu eta gero. «Egia da egoera ekonomikoa horrela egonda jendeak aukera gehiago ikusten duela kanpora joateko, baina ez gara deskapitalizatzen ari inolaz ere».

Bertakoan emigrazioa, txikia

Datuak aztertuta, gorakada bat badago, baina zenbakiak ez dute zerikusirik ere emigrazio orokorrekin. Hegoaldeko datuak: iaz, Espainia ez beste herrialde batzuetara 32.000 lagun joan zirenia, eta horietatik 3.000k zeukaten Espainiakoa nazionalitatea —uste izatekoa da Hegoaldeko herritarrek direla gehienak, nahiz eta egongo diren etorkinak ere tartean—. Egia da, nolana ere, kopurua handitu egin dela aurreko urte batzuekiko; 2008an, esaterako, ia 2.200 pertsonak emigratu zuten.

Migrazioetan gorabeherak eragin ditu krisiak, eta immigranteekiko iritzi ezkorrak ere bai. «Egoera ekonomikoari oso lotuta dago iritzia. Egoera ona izan denean, positibotzat jo da immigrazioa. Guk nahi ez genituen lanpostuak betetzen zituzten. Orain jendeak eragozpen gehiago azaltzen ditu, azkenean lanpostu gutxi daudelako, murrizketa gehiago pairatzen ari direlako... Etorkinak lehia dira, batez ere okerren daudenentzat», esan du Morenok.

Hamarkada beteko gorakadari etena egin dio krisiak, eta motel- du du immigrazioaren abiada. Ez da handiegia izan, nolana ere, Ikuspegiko arduradunaren esanetan. «Etorkin gutxi dauzkagu, beste erkidego batzuekin alderatuz». Baina balio izan dute hamarkada hasieran atzeraz zidudien bidea mantsotzeko. «Etorkinak ez balira etorri, biztanleak galduz joango ginen azken hamabost urteetan, eta zahartzea oraindik handiagoa izango zen».

Bihar: Imanol Esnaola Gaindegi idazkariarekin elkarrizketa.

Biztanleria (eta VI) → Elkarrizketa

Garikoitz Goikoetxea Andoain

Euskal Herria osotasunean aztertzen du zeregina Gaindegia elkarteak. Imanol Esnaola koordinatzaileak (Lezo, Gipuzkoa, 1971) ohartarazi du «kezkatzeko ibilera» daramatela inguru batzuek.

Biztanleria hirukoiztu egin da azken mende eta erdian, baina herrialde batzuetan jaitsi egin da, hala ere. Basamortutzeaz hitz egin daiteke?

Lurralde batzuk gainbehera demografiko larrian daude. Ukaezina da. XIX. mendearrekin alderatuz, egungo bolumenak handiagoak dira, baina gaurko parametroetatik begiratu behar diogu gure demografiari. Lurralde eremu batek demografikoki iraun dezan, zer parametro behar ditu mende baldeko gizarteetan? Lana, eskola, osasun zerbitzuak, garraio publikoa... Horren arabera ebaluatu behar dugu gure errealitate geografikoa. Zenbat herri daude baldintza horiei eutsi ezinik? Hortik begiratu, Euskal Herrian bada hainbat inguru —gero eta eremu zabalagoa— osasuntsu irauteko zailtasun gero eta handiagoekin.


Zein lirateke inguru horiek?

Nafarroa Garaia batez ere, baina Nafarroa Beherea eta Zuberoa aldeak ere larri dira. Nafarroa Garaian mendialdearen zati handi bat, Estellerria ezker-eskuin, eta hegoaldera, Ebroko arrora arte. Arabako hego-ekialdea ere bai. Bizkajian, Enkarterria. Oro har, Euskal Herriko periferia geografikoa. Hori ez litzateke hain deigarria, aldi berean ez balira izan kontrako fenomenoak, ez balira egon hazkunde demografiko azkarreko lekuak: Iruñerria, Lapurdiko estaldea, Donostialdea, Bilbo. Oro har, kostalde osoa eta hiriburuak.

Badaude hainbat eremu ibilera kezagarria dutenak ahultzean. Agian, beste ikuspegi batetik, esan daiteke kezkatzeko ibilera dutela kontzentrazio maila altuko eremuak ere. Kontzentrazioak gaitasunen metatzea dakar, baina baita baliabideen kontzentrazioa ere. Txikiak galtzen dutena metatzen da hiriburuetan: biztanleak, zerbitzu publikoak... Iruñerrian azken hogeitaz metatu den jarduera ekonomikoa eta higiezen arlokoa beste era batera egin izan balitz, era orekatzailean, ziu-rrenik indartsuago leudeke Tafallaldea, Zangozalde, Malerreka, Sakana... Kontrako ereduua hartu da: Iruñerria lehenetsi da, eta orain artesasoitsu izandako inguruak ahultzen hasi dira. Biztanleriaren galera oraindik ez da arazo gisa hartu, baina bai gainbehera ekonomikoa. Eta jarduera ekonomikoaren gainbehera datorrenean biztanleriaren etortzen da.

Metatzea erabaki politikoa izan da?

Euskal Herria, herri ukatua den aldetik, desprogramazio egitasmo baten menpe dago. Euskal Herria desegituratuta dute helburu.



JON URIBE / ARGAZKI PRESS

Imanol Esnaola ◉ Gaindegia ko koordinatzailea

Eremu batzuetan hartutako joerarekin kezkatuta, egoerari nazio gisara aurre egin behar zaio la uste du Esnaolak. Halere, ohartarazi du Euskal Herria «desegituratzeko» proiektuak martxan daudela.

«Euskal hiztunak biltzen dituzten lurraldeak dira aldaketetan galtzaileak»

Horren barruan sartzen da euskal identitate handieneko elementuak gutxietea; tartean, lurralde-tasuna, maila kulturalen eta funtzionalen. Euskal hiztunak biltzen dituzten lurraldeak dira hegemonia geografikoen aldaketan galtzaile handienak. Euskal Herriaren geografia ekonomiko eta kulturala garatzen ari da gure he-

«Euskal Herria osoan ulertuko bagenu, eremu osoa osasuntsu egotea estrategikoa litzateke»

«Frantziak Ipar Euskal Herriaren duen lurralde politikoa kolonizatzailea da, argi eta garbi»

rrizaera aintzat hartu gabe. Handia da transformazioa, eta ez dugu zehaztu hor nola irauan. Desprogramazioak politika dibergenteak eragiten ditu, eta horrek atomizazioa dakar: lurraldeak elkarrengandik urruntzea, kohesioa eta koherentzia galtzea... Proiektu

eta ikuspegi konbergenteak behar dira, elkarrekin handiagoko, elkar hartuta eraginkorragoak garrelako eta horrek onura dakarrelako. Ez dugu nahiko lan egin nazio ikuspegi sortu eta irudikatutako lurralde antolamenduari eta behar gurekin geografia ekonomiko eta demografikoaren inguruan, ez dugu gure lurraldetasuna bere konplexutasunean eta estrategikotasunean ulertzen.

Gazteek ez dute etorkizunik ikusten landa eremuan, eta alde egiten dute. Lurralde bat ez da husten bertakoek maite ez dutelako. Pirinioa ez da hustu hango gazteek gorroto dutelako. Lana ez dago Iruñerrian han soilik lan egin daitekeelako. Gazteak ihesi badoaz beren jaioterri irauteko bermeak eman ez zaizkielako da. Euskal Herria modu osoan ulertuko bagenu, guretzat estrategikoa litzateke lurralde komunitateak, eremu osoan, osasuntsu gordetzea. Indar aberzitateko gobernatu duten lurraldeetan, akatsak akats, biztanleriari eutsi diote, eta jendea erakarri. Indar zentralistek agindu duteneta, hango populazioaren despla-

zamentua eta komunitate naturalak ahultzea eragin dute.

Hiritartzea erabatekoa da munduan.

Euskal Herriak hautu garrantzitsu bat egin behar du: zein da bere lurralde estrategia, bere herritartasunari eusteko? Nazioartean kostako tokiak eta jarduera ekonomiko azkarrekoak handitzen ari dira, eta handitzen jarraituko dute. Guk ere hori egin beharko dugu. Non dago, ordea, gure muga? Landa eremutik hiriguneetarako exodoak gurean ere segitzen du, beste hainbat lurraldetan bezala. Gure lurraldea, ordea, hedaturaz txikia da, baina ongi kokatua. Industria, merkataritza eta elikagai bikainak sortzeko behar den guztia dugu. Lurraldea elementu ekonomiko eta kultural gisa lehen mailako osagaia da. Lurraldetasuna zainduz, herri izaten segitzeko oinarri jartzen ari gara.

Beraz, zein da Euskal Herriaren herritartasuna zaintzeko estrategia eraginkorra? Bide bat da baliabideak eta gaitasunak eremu jaioterri metatzea, aldaketei egitura indartsuagoekin erantzuteko. Beste aukera: diseinu polinuklear

bat, lurraldean hedatua, era inteligentean orekatuko dituen lurralde maila ezberdinak. Dikotomia aspalditik dugu, baina inoiz ez dugu jo nazio gisa zirt edo zart egitera. Kanpoko prozesuak eta tokian tokiko premiak gailendu zaizkigu.

Azken batean, transformazio historikoa dugu lurraldean eta biztanlerian. Jendea inoiz ez bezala mugitu da leku batzuetatik besteetara. Lurralde batzuen eragina handitu egin da, eta hainbatek galdu dute inoiz izan zuten lekua. Pentsatu beharko genuke nagusitzen ari diren lurralde horiek zernola bizi nahi duten beste lurraldeekiko, eta zer aitortu behar zaion, baliabide mailan, egun baztertuak diren euskal lurraldeei.

Immigrazioaz hitz egin da azken hamarkadan. Lapurdi kostan indartzen ari da Frantziako immigrazioa.

Lapurdikoko kostalde zerbiztu eremua da, eta hori ezarri duenak xedeetako bat du bizimodu erosoa eskaintzea hain bizi ahal direnei. Esaten ez dena da bertako herritarrek ere behar dutela aukera hain bizi zeko. Esaten da etor daitezkeela eroso bizi nahi duen oro; galdera da lekurik baden bertakoentzat, maila ekonomiko jakin batera iritsi gabe. Frantziak Ipar Euskal Herriaren duen lurralde politikoa kolonizatzailea da, argi eta garbi. Gainera, ez du egiten aitortza instituzionalik, ez du zuten arazoak konpontzen hango lehentasunen arabera, eta ukatu egiten ditu egiturazko esparru asko: lurralde antolaketa eta ekonomia, maila guztietako heziketa... Alde horretatik, Ipar Euskal Herriak, tresna propiorik gabe, nekez erantzun diezaiokoe aurrean duenari.

Eta zer errealitate du aumean?

Egiturazko arloak kudeatu ezina: jarduera ekonomikoak, heziketa, mugikortasuna, Hegoaldearekiko bizikidetzeta... Zerbiztu lurralde eroso bat izatera behartu dutesenez, bere jardura ekonomikoa oso emana dago etxeak salerosteko negozioari. Horrek dakar etxea ordain dezakeenarentzat soilik izatea bizilekua, eta nekazaritzari edo industriari lotutako jarduerak, enplegua sortzen dutenak, mugatu behar izatea egoiliar berrien atsedenera kalte ez egiteko.

Gainera, Ipar Euskal Herriko lan merkatua oso prekariora da: ia ez eskainitako 10.000 lanpostuen erdiak sasoiako ziren, merkataritza garberaren arabera. Norbizi daiteke udan lau hilabete lan eginez? Laguntza sozialak lanarekin urtzen dituen soilik. Euskal herritarrek hautu hori ere egin behar izaten dute, ogibide bati lotu, nahiz eta Euskal Herriatik kanpo izan. Euskal gazteak atzerrian hezten dira, hain aurkitzen dutelana, eta hain antolatzen dute bizitza. Milaka gazte prestu galtzen ari gara eskema horrekin, eta belaunaldien arteko ordezkapen endogeneoa eragozten. Kolonizazio hutza.